

ERALDAKETA EKOSOZIALERAKO PROGRAMAREN TEKNIKARIAREN HAUTAKETA PROZESUAN EPAIMAHAIAREN AKTA

Eraldaketa Ekosozialerako **programaren** baitan A2 mailako teknikaria aukeratzeko hautaketa prozesua burutu da.

2026ko uztailaren 22an azterketa egin zen eta bi hautagai aurkeztu ziren:

JON ANDUAGA GARAY

CARMEN MARTINEZ DE LEJARZA AMENABAR

Azterketa euskara hutsean egin zen. Erabaki horren oinarria izan zen, 4. profila eskatzen den postua izanik ulertu zen azterketa euskara hutsean egitea zela aukera egokiena.

Ikusirik hizkuntza koofiziala duten autonomia-erkidegoek nahitaez utzi behar dietela herritarrei azterketak, oposizioak edo hautaprobak modalitate elebidunean egiten (gaztelania edo lurraldeko hizkuntza koofiziala askatasunez aukeratu ahal izango dute), eta aintzat izanik 39/2015 Legearen (APAPL) 15. artikularen arabera, lurralde eleaniztun batean, hizkuntza koofiziala duten autonomia-erkidegoetan toki-administrazioek hautaketa-organismoek bi hizkuntzetan eman behar dituztela enuntziatuak eta azterketak, hautagaiak hala eskatzen badu, eta ariketen erabateko baliozkotasuna eta eraginkortasuna bermatze aldera.

39/2015 Legearen (APAPL) 109. artikulua oinarri, Debagoieneko Mankomunitateari dagokio akats zuzenketa egitea, Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Hautagaiei egoeraren berri eman zitzaion, eta adostu zen azterketa berri bat egitea non enuntziatuak eta azterketa bi hizkuntzetan emango ziren. Bi hautagaien onespenezkin azterketa berria egiten da 2026ko uztailaren 28an.

2026ko uztailaren 28an hautagai bakarra aurkeztu da, eta honako emaitzak lortu ditu:

CARMEN MARTINEZ DE LEJARZA AMENABAR

Hautaketa prozesuaren emaitza honakoa izan da:

MEREZIMENDUEN BALORAZIOA: 17 PUNTU

PROBA TEKNIKOAREN BALORAZIOA: 42,75 PUNTU

- **gaitegi orokorra: 15**
- **kasu praktikoa: 27,75**

ELKARRIZKETAREN BALORAZIOA: 17 PUNTU

GUZTIRA: 76,75 PUNTU

Honenbestez, hautaketa prozesuari amaiera eman zaio eta Debagoieneko Mankomunitateko Eraldaketa Ekosozialerako programa hornituko da. Ez da lan poltsarik eratzen, hautagai gehiagorik ez dagoelako.

Arrasaten, sinadura elektronikoa adierazitako datan